BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4251

AGINDUA, 2011ko ekainaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Elgoibarko (Gipuzkoa) «Elgoibar Ikastola» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari Haur Hezkuntzako 1. zikloko unitateak gehitzeko eta Batxilergoko unitateak kentzeko baimena emateko baimena emateko dena.

Elgoibarko (Gipuzkoa) «Elgoibar Ikastola» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak ikastetxe horretako Haur Hezkuntzako 1. zikloan bi unitate gehitzeko eta Batxilergoko sei unitateko kentzeko eskatuz abiarazi duen espedientea aztertu da.

Espediente horri Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Arau hauek ikusi dira: apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (9ko BOE); azaroaren 16ko 215/2004 Dekretua (19ko EHAA), 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri zituena –Dekretu horrek, halaber, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen dekretuaren artikulu batzuen indarraldiari eutsi zion–; bai eta gai horretan erabiltzekoak diren gainerako xedapenak. Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Honen jarraian zehazten den ikastetxe pribatuari 2011/2012 ikasturtetik aurrera Haur Hezkuntzako 1. zikloko unitate bi gehitzeko eta Batxilergoko sei unitate kentzeko baimena ematen zaio:

Kode zenbakia: 20007588

Izen espezifikoa: «Elgoibar Ikastola»

Titularra: Pedro Miguel Urruzuno Kooperatiba Elkartea.

Helbidea: Ermuaran bidea, 7

Udalerria: Elgoibar

Lurralde historikoa: Gipuzkoa.

Baimena: Haur Hezkuntzako 1. zikloko unitate bi gehitzeko eta Batxilergoko sei unitate kentzeko.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloan: 12 unitate, honelako edukierakoak:

● 3 unitate urtebetetik beherako ikasleentzat, unitate bakoitza 8 ikaspostutarako edukiera duena.

● 4 unitate urtebetetik bi urtera bitarteko ikasleentzat, unitate bakoitza 13 ikaspostutarako edukiera duena.

● 5 unitate bi urtetik hiru urtera bitarteko ikasleentzat, unitate bakoitza 18 ikaspostutarako edukiera duena.

– Haur Hezkuntzako 2. zikloan: 9 unitate, 205 ikaspostuko edukiera.

– Lehen Hezkuntza: 15 unitate, 375 ikaspostuko edukiera.

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 8 unitate, 240 ikaspostuko edukiera.

– Hezkuntza Berezia: 2 unitate.

2. artikulua.– Indarrean dauden legeak betetzera beharturik gelditzen da ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazioari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.– Ikastetxeak Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua), bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo diru-laguntzen deialdien bitartez laguntzak lortuko direnik.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 30a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.